



“CLUB DE CREATIVOS” LEHIAKETA DONOSTIAKO KURSAALEAN EGINGO DA APIRILAREN 7TIK 9RA

2016ko apirilaren 7, 8 eta 9an “Club de Creativos” Publizitate Lehiaketa egingo da Donostiako Kursaal Aretoan; bertan, publizitate eta sormen alorreko nazioarteko profesionalak bilduko dira. Donostiako Turismo & Convention Burueak bultzatutako akordio baten bitartez, lehiaketa Donostian egingo da hurrengo hiru urteetan, Gipuzkoako Ostalaritza eta Hotel Elkartearen, Kursaalen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Basquetour-en kolaborazioarekin.

Donostiako Turismoko arduradunek, haien artean Ernesto Gasco zinegotzi ordezkariak, Guillermo Viglione eta Concha Wertek – “Club de Creativos”-eko presidente eta gerenteak- apirilako ekitaldiaren hainbat datu xehatu dituzte. Haiekin batera, Iker Goikoetxea, Kusaaleko zuzendaria, Paúl Liceaga, Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteko gerentea eta Kino Martínez, Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteko Idazkari Orokorra izan dira, horrelako ekimena hirian ospatzea babestuz.

Donostiako Turismo zinegotziak, Ernesto Gascok, bere “poztasuna” azaldu du, hirirako halako ekitaldi profesionala lortu izanagatik. Horrelako ekimen batek “hiriko agendan sormena eta kongresuen turismoa jartzen du berriro ere, eta, gainera, Europako Kultur Hiriburutza ospatuko da datorren urtean”.



Lehiaketaren hurrengo edizioan aipagarria da Sir John Hegarty-ren presentzia, bai “A egunean” eta “C egunean”. John Hegarty, “Bartle Bogle Hegarty” entzutetsuaren fundatzailea da, eta publizitate munduko pertsonairik bikainenetakoa. “C Egunean”, markentzako sormenak duen balioa azpimarratu nahi da, eta horrekin bat dator Hegarty-ren hautaketa.

“Sir John Hegarty-k sari ugari jaso ditu, eta bai sortzaileek eta baita iragartzaileek ere mirestutako pertsonaia da. Marka indartsuak sortzeko egin duen lanaren balioa aintzat hartua da; besteak beste, Levis-ena da agian bere lanik ezagunena.

“Club de Creativos”-en antolatzaileak bi ekitaldien programa osatzeko lanean ari dira. Xedea da sektorearentzako erabilgarriak izango diren edukiak sortzea, profesionalen gain, sektorerako hurbildun nahi duten gazteak ere laguntzeko. Topaketa guztian zehar nagusituko den leloa **sormena** izango da, bai sortzaileek eta baita iragartzaileek ere partekatzen dutena, nahiz eta bakoitza mahaiaren alde desberdinetan eseri.

Apirilaren 7an hasiko da lehiaketa. Lehenik eta behin, eztabaida eta lan- saioak izango dira sortzaile eta iragartzaileen artean. Jardunaldi horretan, Estatuko sortzaile eta iragartzaile garrantzitsuenetakoen artean taldeak osatuko dira. Lan taldeetatik sortzen diren ondorioak apirilaren 8ko goizean zehar partekatuko dira, eta, era berean, Estatuko eta nazioarteko hainbat hitzaldi entzun ahal izango dira. Apirilaren 9an, larunbata, hitzaldiak amaitu ondoren, Espainiako Sormen Lehiaketaren sarien zeremonia egingo da, eta ondoren, sormenaren festa.

Hitzaldiak egiten diren bitartean, gainera, Kursaaan “2015eko Grafikarik Onena”-ren erakusketa egongo da ikusgai, eta Estatuko eta Latinoamerikako publizitate-lanik onenak proiektatuko dira.

Donostia eta Sormena

2012an El Sol Publizitate Jaialdiaren antolatzaileek hartutako erabakiaren ondoren, Donostia uzteko eta egoitza Bilbon egokitzekoa, Donostia Turismoa & Convention Bureauk era horretako ekimen bat aurkitzeko lan egin du, eta Club de Creativos Elkartearekin akordio batera iritsi da “C Eguna” Publizitate Lehiaketa eta “A Eguna” Sortzaile eta Iragartzaileen Topaketaren egoitza bilakatzeko.

Club de Creativos Elkarteak – irabazi asmorik gabeko erakundea, Estatuan lan sortzailearen kalitate maila igotzeko lanean jarduten duena, eta sektorearen profesionalak elkartu nahi dituen hezkuntza eta prestakuntzaren bidez- 2004 urtetik antolatzen du ekitaldia. 2 eguneko jaialdia da, eta bertan, alde batetik, publizitate lanak aurkezten dira (grafikoa, irudiak, Internet), eta, bestetik, publizitatean nazioarteko adituen hitzaldiak eta aurkezpenak eskaintzen dira. Azken edizioan 1000 pertsona inguru bildu zituen Iruñan, itxiera-saioan, eta eguneko 700-800 pertsona izaten ditu batez bestez.

Azken hiru urteetan “C Eguna” Iruñan ospatu da, eta 2012ra arte beste hainbat hiritan egin da, hala nola, Zaragoza, Madrid, Valladolid, Bartzelona, Sitges edo Valentzian. Bestalde, “A eguna”, Palman, Kanaria Handian, Alicanten, Cartagenan, Terrelodonesen eta Sevillan egin da orain arte.